

Rikardo Arregi

Euskaldunon Egunkaria, 1994-12-07: 2.

Aurten bete dira 25 urte Rikardo Arregi istripuz hil zela. Andoaingo Udalak bere Seme Kuttunari urtero eskaintzen dion sona handiko literatur lehiaketaz gain, gizaldi laurdenaren urteurrena bete den honetan osoago eta sakonago den zerbait burutu nahiz eta "Gizona eta garaia" izeneko mahainguru sorta prestatu dio Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren bitartez. Ezaguna da Rikardok Euskal Herriaren Alfabetatze eta Euskalduntzeaz izan zuen ardura, orduan gure artean berri-berria, eta gero hainbeste lan egin duen AEKren sorreran izan zuen parte hartze nagusia. Halere, ez zen bere lana gai honen berezko ardura eta garrantzian geratu, batez ere eragin honetan jarri zuen arduraketa eta kemen pertsonalaren garrantzian erakutsi zuenean baizik. Hitzaldi eta eztabaidetan erabilitako ikusbideetatik aipatzekoak dira: sinismena, kultura eta hizkuntza, eta batez ere ikuspuntu guzti hauetan itxurazkoa bakarrik denetik at barru bilakerakoi nabari zen Rikardo gaztearen izaera bereziko jite ernerazgarria. Sinismena, herrikoi eta sendi barrutik tinko itsatsitakoa bazetorkion ere, eta horrexegatik beharbada, errazkeriaren aurkako errebeldia zen gazteak piztua zeramana; "euskaldun-fededun"aren aurkako borrokalari fededuna, fede indibiduala, bakoitzak berez ernetua dena. "Kultura" eta "Hizkuntza", ez ziren gazte borrokalariarentzat apaingarri batzu, euskaldunaren herria eta mundua ulerrarazteko, eta beharbada barru iraultzaren bidez alda eta osa beharra, zentzu biziz egunero landu eta sufritu behar den zerbait.